



Oñatiko BILDU UDAL TALDEAK Osoko Bilkurak bere egin dezan honoko mozioa aurkezten du:

### ADIERAZPENA

Urtarrilaren 7an, Auzitegi Nazionalaren aginduz, 8 euskal herritar atxilotuak eta ondoren espetxeratuak izan ziren, ustez ETAko kide zirelakoan. Hortaz, iraganeko gertakari ziruditenak berriro ere errepikatu dira.

Horren guztiaren aurrean, udal honek honako hau adierazi nahi du:

- 1- Oñatiko Udalak uste du era horretako jarduerak oztopo bat direla gure herriak gaur egun bizi duen testuinguru politikoan, bai eta bakea eta bizikidetzaren demokratikoa ezartzeko prozesua irmotuko delako itxaropen zabalduan ere.
- 2- Oñatiko Udalak eskatzen du errespetatu daitezela euskal herritar guztien giza eskubideak eta eskubide zibil eta politikoak
- 3- Oñatiko Udalak eskatzen du berehala eman dadila prozedura horren gaineko ebazpen judiziala. Modu horretara, ez dira urratuko orain atxilo dauden pertsona horien eskubideak.
- 4- Oñatiko Udalak euskal gizarte osoari eskatzen dio jarrai dezala lanean herritar horien eskubide guztien alde eta jarrai dezala eskubide horiek aldarrikatzen, areago testuinguru politiko honetan, denok egin behar baitugu bakea eraikitzeko eta irmotzeko

Euskal Herrian, 2014ko urtarrilean

Euskal Herria Bildu"

Oñatin 2014ko urtarrilaren 28an